

LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZ: ESKUBIDEA PAPEREAN, MUGAK PRAKTIKAN

EAEko hezkuntza-sistemak paradoxa argi bat erakusten du euskararen presentziari dagokionez. DBH-n D eredu nagusi bada eta Batxilergoan goranzko joera badago, Lanbide Heziketan zergatik ikasleen herenak inguru baino ez du euskaraz ikasten? Zergatik gertatzen da eten hau? **Nola da posible euskaraz ikasteko eskubidea etapa batzuetan bermatzea, baina Lanbide Heziketan ez?**

Arazoaren muina Hezkuntza Sailak ikasturte bakoitzean ezartzen dituen irizpideetan dago. DBHko eredu eskaintza eskariaren arabera den bitartean, **Lanbide Heziketan alde aurretik planifikatua egon ezean, ez da D eredurik eskaintzen**. Zentzu honetan, badirudi administrazioak, ikasleen benetako aukerei eta hizkuntz eskubideei ez diela lehentasuna ematen.

Datuek eurek bakarrik hitz egiten dute EAE mailan: D ereduan matrikulatzen dira DBHn %73,81; Batxilergoan %68,78 eta LHn %29,48 hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko 2024-25 matrikula estatistikaren arabera.

Ondorio argia da: lan mundura bideratutako ikasle askorentzat euskarazko ikaskuntza eten egiten da, nahiz eta aurreko etapa guztietan euskaraz ikasi.

Honenbestez, **LHko ikasleek zer aukera dute benetan euskaraz ikasten jarraitzeko?** D ereduaren eskaintza hain murrizta izanik, ikasle gehienek A eta B ereduetara jotzen dute. Eredu bi hauetan, oster, euskararen presentzia oso mugatua da (Lanbide Heziketako A ereduan euskara ikasgai ere ez da), eta kasu askotan ikasleek euskarazko ikasgai gabe egiten dute ziklo osoa. Horrek zuzenean urratzen du legea: Lanbide Heziketako prestakuntza-programa guztiek euskaraz ikasteko aukera bermatu behar lukete, ikasleek gutxieneko gaitasuna gara dezaten. Hori ez da betetzen, eta **egoera oso kezagarria da!**

Lanbide Heziketa lan-mundurako sarbide nagusietako bat da, baina euskararen presentzia ez da inondik ere nahikoa. Horrek esan nahi du milaka ikasle **ez dutela euskaraz lan-arloko hizkera, tresna eta ohiturak garatzeko aukerarik**. Are gehiago, mezu okerra zabaltzen da: euskara ikastea baliagarria da etapa batzuetan, baina ez lanerako. Eta hori ez da kasualitatea, erabaki politikoen emaitza baizik.

Zentzurik ba al du ikasle bati bere euskarazko ikaskuntza-ibilbidea etetea? Onargarria irudituko litzaiguke DBH D ereduan egindako ikasle bat Batxilergo A ereduan egitera behartzea? Ez litzateke batere zentzuzkoa, ezta? Ordea, zergatik ematen da zentzugabekeria hau Lanbide Heziketa hautatzen duten ikasle askorekin? Euskaraz ikasteko eskubidea ez da bermatzen non eta lan munduaren atarian.

Euskara indartu eta ezartzeko BIDEORRI garatu baten premia dago, helburu zehatzekin eta epe mugatuetara.

NORMAKUNTZA BATZORDEEN NORAEZA

Orain arteko Ulibarri programa bukatu edo eten egingo delako berria jaso da, baina horren orde zer planteatzen den ez dute aurkeztu. Hortarako Normakuntzan gabizenon iritzi, aportazio edo ideiarik ez dute jaso nahi izan eta bertan gauzenon

sentsasiñoa baztertuta gagozelakoa eta mezpretxuarena da. Guk ere ibilbide eta erronka honen parte izan nahi dugu eta laguntzeko gogoia dugu!!
Ondorioa, garbia da: galtzailea, beste behin, euskara eta euskaldunak. Heldu da hori aldatzeko garaia!

FORMACIÓN PROFESIONAL EN EUSKERA: EL DERECHO EN EL PAPEL, LIMITACIONES EN LA PRÁCTICA

El sistema educativo vasco presenta una clara paradoja en cuanto a la presencia del euskera. Si en la ESO impera el modelo D y en el Bachillerato hay una tendencia al alza, en la Formación Profesional, ¿por qué solo alrededor de un tercio de los alumnos aprenden euskera? ¿Por qué se produce este corte?
¿Cómo es posible que el derecho a estudiar en euskera se garantice en algunas etapas, pero en Formación Profesional no?

El núcleo del problema está en los criterios que el Departamento de Educación establece cada curso. Mientras que la oferta de la ESO es ajustada a la demanda, si no está previamente planificada en Formación Profesional, no se oferta un modelo D. En este sentido, parece que la administración no da prioridad a las posibilidades reales de los alumnos y a sus derechos lingüísticos.

Los datos hablan por sí solos en la CAV: se matriculan en el modelo D en la ESO un 73,81%; en Bachillerato un 68,78% y en FP un 29,48%, respectivamente, según la estadística de matrícula 2024/25 del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

La conclusión es clara: para muchos alumnos orientados al mundo laboral se interrumpe el aprendizaje del euskera, a pesar de que en todas las etapas anteriores se aprende en euskera.

Por tanto, ¿qué opción tienen los alumnos de FP para seguir aprendiendo en euskera? La oferta del modelo D es tan reducida que la mayoría de los alumnos recurren a los modelos A y B. En estos dos modelos, por el contrario, la presencia del euskera es muy limitada (en el modelo A de Formación Profesional el euskera tampoco es materia), y en muchos casos los alumnos realizan todo el ciclo sin asignaturas en euskera. Esto vulnera directamente la ley: todos los programas formativos de Formación Profesional deberían garantizar la posibilidad de estudiar en euskera para que el alumnado desarrolle su capacidad mínima. ¡Es o no se cumple, y la situación es muy preocupante!

La Formación Profesional es una de las principales vías de acceso al mundo laboral, pero la presencia del euskera no es en absoluto suficiente. Esto significa que miles de alumnos y alumnas no tienen la posibilidad de desarrollar en euskera el lenguaje, las herramientas y los hábitos del ámbito laboral. Es más, se dif

unde un mensaje erróneo: aprender euskera es útil en algunas etapas, pero no para trabajar. Y eso no es casualidad, sino el resultado de decisiones políticas.

¿Tiene sentido interrumpir a un/a alumno/a su itinerario de aprendizaje en euskera? ¿Nos parecería aceptable obligar a un alumno de ESO en modelo D a cursar el Bachillerato en modelo A? Sería muy poco razonable, ¿no?

Ahora bien, ¿por qué se da este disparate con muchos alumnos que optan por la Formación Profesional? El derecho a estudiar en euskera no se garantiza a las puertas del mundo laboral.

Se necesita UNA HOJA DE RUTA

desarrollada para fortalecer e implantar el euskera, con objetivos concretos y a plazos limitados.

LA DERIVA DE LAS COMISIONES DE NORMALIZACIÓN

Se ha recibido la noticia de que el programa Ulibarri se va a terminar o suspender, pero no se ha presentado qué se plantea en su lugar. Para ello no han querido recoger ninguna [opinión](#), aportación o idea de los que trabajamos en la Normalización y la sensación de los que allí estábamos es de marginación y desinterés. Nosotros también queremos ser parte de esta trayectoria y de este

reto y tenemos ganas de ayudar! !

La conclusión es clara: el perdedor, una vez más, el euskera y los euskaldunes. ¡Ha llegado el momento de cambiar eso!